

Denbora-


1 Inkesta

Askariarekin batera arratsaldero jaten du Aritzek gutizia bat. Zer den jakiteko, aurkitu galderen erantzun zuzena eta margotu laukiak.

1.- Zein herritan ari da jokatzeko Munduko Futbol txapelketa?

(Erantzun zuzena hori kolorez margotu).

- 1.- Munich.
- 2.- Paris.
- 3.- Atenas.



2.- Zein egunetan pizten da San Joan sua?

(Erantzun zuzena arrosa kolorez margotu).

- 4.- Maiatzaren 23an.
- 5.- Ekainaren 24an.
- 6.- Ekainaren 23an.

3.- Zein pilotari da eskuz banakako txapelketa?

(Erantzun zuzena arrosa kolorez margotu).

- 7.- Asier Olaizola.
- 8.- Juan Martinez Irujo.
- 9.- Aimar Olaizola.

4.- Zeledon ikusi dugula badiogu, zein hiriburutako jaietan izan gara?

(Erantzun zuzena marroi kolorez margotu).

- 10.- Baionan.
- 11.- Donostian.
- 12.- Gasteizen.


5.- Non dago Barra hondartza?

(Erantzun zuzena marroi kolorez margotu).

- 13.- Hondarribian.
- 14.- Angelun.
- 15.- Sopelan.

2 Bikiak


Izugarri gustatzen zaizkio loreak Aitorren amonari, eta loreontzi ugari ditu etxean. Bi loreontzi, ordea, berdin-berdinak dira. Zein?



3 Lotu puntuak

Bi hizki marraztu ditu Loreak koadernoan. Marrazkiak ezabatu egin ditu, baina. Zenbakiak lotzen badituzu, zer marraztu duen ikusiko duzu.

-pasa



4 Osatu irudia

Basiliok erdi eginda utzi duen marrazkia osatzeko gai izango al zinateke? Osatu irudia eta margotu nahi duzun kolorez!

Erantzunak: 1.- Izozki bat.
2.- a eta e.
3.- E eta M hizkiak.

5 Hizki salda

Letraz beteriko eltzekada ari da prestatzen Bittor sukaldaria. Hizkien artean hainbat hitz nahasi ditu. Ikusten al dituzu non diren lapikoko hitzak?




G	U	S	T	U	A	I	P
F	E	R	R	S	Z	A	L
Z	A	K	U	A	P	E	N
A	S	D	K	E	R	T	B
X	R	I	R	A	I	N	R
E	L	T	T	M	P	O	K
D	E	S	I	R	A	T	U
S	T	B	A	S	N	F	D
U	X	Z	T	A	A	P	I
L	E	U	G	A	R	U	E
A	B	E	G	U	Z	K	D
T	I	A	B	E	I	R	L
A	Z	U	U	I	K	P	A
P	I	R	T	R	O	U	O
Z	T	P	I	A	I	R	G
E	Z	E	L	K	N	R	E
K	A	G	O	R	A	U	H
E	R	I	M	U	R	T	E
G	E	R	E	A	E	A	K
L	O	Z	O	R	N	R	O
U	S	A	I	N	A	U	L

Jolasa

Gotorlekuari eraso

Soldaduak edo zaindariak, zaindariak edo soldaduak; nortzuk izango dira gotorlekuan jaun eta jabe?

1 Marraztu orri batean irudian agertzen den taula. Ezarri fitxak irudian ikusten diren modura. Laukiaren barruan sartuta dagoen taula zatia gotorlekua da, eta barruan ageri diren bi fitxa gorriak, gotorlekuko zaindariak. Fitxa beltzak, berriz, gotorlekua hartu edo konkistatu nahi duten soldaduak dira. 24 fitxa beltz izango dira guztira.



2 Soldaduak aurreraka edo diagonalean mugitu daitezke bakarrik, marra zuzenari jarraituz, noski. Gotorlekura sartu diren fitxa beltzak harrapatu behar dituzte zaindariak. Horretarako, soldaduen gainetik salto egin eta soldaduaren atzean dagoen hutsunean kokatu behar dira fitxa gorriak, baina gotorlekutik irten gabe.

3 Fitxa beltzak gotorlekuko hutsune guztiak betetzen saiatuko dira, eta baita zaindariak mugitu ezinik uzten ere. Gorriak, berriz, ahalik eta fitxa beltz gehienak harrapatzen saiatuko dira.

4 Zortzi soldadu bakarrik gertatzen badira, gorriek irabaziko dute partida.